Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Joxe Leunda Agirre

Urretxu, Gipuzkoa (1937-2020)



Aurkibidea

Biografia



1937ko urrian, Urretxuko Deskargabarrena baserrian jaioa; 7 senidetan gazteena. Aita Ezkioko Aranzadi baserrikoa zuen, eta ama Beasaingoa. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu zuen eta elkarrizketan alor horretako zenbait gai azaldu zizkigun. Elkarrizketetako batean Urretxuko Begibakar baserriko Euxebio Aiastuirekin batera agertzen da.

Zintak

URR-011

- **Proiektua**: Urretxu eta Zumarragako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lasa, Xabier
- **Data**: 2001-01-01
- **Iraupena**: 52 min
- **Euskarria**: CD
- **Emalea**: Lasa, Xabier

URR-028

- **Proiektua**: Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2011-07-08
- **Iraupena**: 95 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

URR-029

- **Proiektua**: Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2011-07-09
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

URR-049

- **Proiektua**: Lekaio Elkartearen grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lasa, Xabier
- **Data**: 2007-01-01
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: Lasa, Xabier

URR-050

- **Proiektua**: Lekaio Elkartearen grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lasa, Xabier
- **Data**: 2009-01-01
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: Lasa, Xabier

URR-051

- **Proiektua**: Lekaio Elkartearen grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lasa, Xabier
- **Data**: 2014-01-01
- **Iraupena**: 18 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: Lasa, Xabier

Pasarteak

1. Idiak eta basolana

- **Erref**: URR-028/005
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:07:04. **Bukatu**: 00:09:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Idiak izaten zituzten baserrian, eta haiekin egiten zituzten labrantza lanak. Etxean lanik ez zegoenean, idiekin basora joaten ziren egurra ateratzera. Auzoko dozenerdi baserritako lau-bost idi-pare joaten ziren egurra ateratzera, basoaren tamainaren arabera. Etxeko basoak nahiz besterenak, jornalean, ateratzen aritzen ziren. Basolanerako idiak zituzten auzoko baserriak: Mendizabal, Zabaleta, Iturbe, Agerre, Begibakar, Ipiñarrieta, Kutxitxeo...

2. Baserri handiak eta txikiak

- **Erref**: URR-028/007
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:10:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baserri txikienetan, labrantza lanak behiekin egiten ziren. Baserri handiagoetan, berriz, idiekin: baserri horietakoek etxean lanik ez zegoenean, idiekin basolanak egiten zituzten. Gehinetan, baserri handi horiek baserritik bertatik bizi ziren; txikiagoek, baserriko lana lantegikoarekin uztartu ohi zuten.

3. Basolanerako gurdi motak

- **Erref**: URR-028/008
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:10:01. **Bukatu**: 00:12:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Euxebioaren aita basolanean ibiltzen zen. Basolanari buruzko azalpenak ematen dituzte. Tronko-gurdia, zaldi-gurdia... nolakoa zen eta nola gobernatzen zen azaltzen dute. Enborren tamaiaren araberako gurdiak erabiltzen ziren.

4. Egurra karriatzeko moduak

- **Erref**: URR-028/009
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:12:11. **Bukatu**: 00:13:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Egurra karriatzeko gurdien ezaugarriak. Egurra nola lotzen eta jasotzen zen gurdian. Txinga, eraztun bat duen burdinazko ziria: enborrak lotzeko sistema.

5. Basolanak

- **Erref**: URR-028/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:13:52. **Bukatu**: 00:15:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Basolanari buruzko azalpenak. Enborrak trontzaz mozten ziren. Pago motza, pago luzea eta haritza "bastante ezagutu dute" inguruetan. Lehen, pinudi oso gutxi zegoen.

6. Zuhaitzak eta egurra

- **Erref**: URR-028/011
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:15:07. **Bukatu**: 00:16:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Flora
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Egur mota bakoitza zertarako erabiltzen zen. Haritz-egurra: eraikuntzarako, altzarigintzarako... Soberakinak, sutarako. Pago-egurra: altzarigintzarako, uztarriak egiteko... Pago motzaren adarrak, berriz, sutarako eta ikatza egiteko. "Haritza sutarako txarra ez, baina pagoaren pareko ere ez" dio Joxek.

7. Aurrekoneko soldata eta prezioak

- **Erref**: URR-028/013
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:17:21. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Joxek eguneko 18 pezeta irabazten zituen Patrizio Etxeberria lantegian lanean hasi zenean. Mutikoa zela, baso erdia erreal bat kostatzen zen. Gero, hiru eta bost txakur handitan ere ezagutu zuen baso erdia.

8. Egurra uzteko jakineko tokiak

- **Erref**: URR-028/014
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Basogintzari buruzko azalpenak. Basomutilek egurra non pilatzen zuten. Kamino ertzean baziren egurra uzteko jakineko tokiak: Joxeren baserri ondoan eta Deskargan, esaterako. Toponimia: Deskargabarrena baserri aurreari, "trongo ondo" esaten diote. Egurra nola kargatzen zen kamionean.

9. Egurra, zerrategira

- **Erref**: URR-028/015
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:20:36. **Bukatu**: 00:21:41

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Auzoan basolanean, egurra jasotzen, aritzen ziren gizonen izenak aipatzen dituzte. Zenbaitek basoko egurra erosi eta zerrategietara saltzen zuten egurra. Beste batzuk zerra jabeak izaten ziren.

10. Labrantza: artoa eta garia

- **Erref**: URR-028/016
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:21:41. **Bukatu**: 00:24:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Baserri inguruko lurrak nola antolatzen ziren azaltzen dute: gehiena soroa zen. Artoa eta garia "ezinbestekoak" ziren baserrian. Urte baten garia, eta hurrengoan, berriz, artoa erein ohi zuten, txandatuz.

11. Urte sasoien araberako soroko lanak

- **Erref**: URR-028/017
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:24:14. **Bukatu**: 00:26:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Artoa udaberrian erein eta udazkenean jasotzen zuten. Artoarekin batera babarruna ereiten zen. Udazkenean, artoa eta babarruna jasotakoan, lurrari buelta eman eta garia ereiten zen. Hurrengo urteko uztaila-abuztuan jasotzen zen garia. Garia jaso ondoren, arbia ereiten zen udaberrira arte. Eta arbia kendutakoan, artoa sartzen zen berriz. Etenik gabe aritzen ziren labrantzan.

12. Labrantzako lana eta tresnak

- **Erref**: URR-028/018
- **Iraupena**: 0:05:16. **Hasi**: 00:26:26. **Bukatu**: 00:31:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Garia eta artoa ereiteko goldearekin jiratzen zen lurra. Aurretik, berriz, laian egiten zen. Garia bildu ondoren, arbia ereiten zen "azalapain", lurrari buelta eman gabe. Baserriko hainbat tresna deskribatzen ditu: burdinarea, karramarroa, area, alperra, galtzua, pertika, "pertikilloa"...

13. Arbia

- **Erref**: URR-028/019
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:31:42. **Bukatu**: 00:33:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Arbia neguan biltzen zen, urtarril aldera. Lehenengo, arbi-hostoa biltzen zen; arbiaren burua egin gabe zegoelako. Sakuzko mantal batzuetan biltzen zituzten arbi-hostoak. Lan "gogorra" izaten zen.

14. Pagotxa

- **Erref**: URR-028/021
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:34:49. **Bukatu**: 00:36:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Garai batean, soroetan pagotxa ereiten zen. Animalien bazkarako izan ohi zen. Pagotxari buruzko azalpenak: nolakoa zen, nola eta noiz ebakitzen ziren, zer kolore zuten...

15. Alpapa

- **Erref**: URR-028/022
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:36:40. **Bukatu**: 00:38:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Garai batean, soroetan alpapa ereiten zen. Animalien bazkarako izan ohi zen. Alpapari buruzko azalpenak: motak, ezaugarriak, nola eta noiz ebakitzen ziren...

16. Simaurra

- **Erref**: URR-028/023
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:38:49. **Bukatu**: 00:41:51

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Simaurra erabiltzen zuten lurra ongarritzeko. Purina eta simaur solidoari buruzko azalpenak. Garoa, otea, orbela... basotik ekarri eta behien simaurrarekin nahastzen zuten ongarria ugaltzeko. Kortoloia nola egiten zen.

17. Baserriaren egitura

- **Erref**: URR-028/026
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:46:24. **Bukatu**: 00:48:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Baserriaren egitura. Bizilekua egutera aldera egoten zen. Ukuilua, atzealdera (iparraldera). Gainean, ganbara: belarrondoa, garoa iparraldera; alea (artoa, baba...), berriz, bizilekuaren gainean (eguteran).

18. Baserriaren egitura: ukuilua

- **Erref**: URR-028/027
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:48:13. **Bukatu**: 00:50:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Baserriaren egitura. Garai batean, baserri gehienetan ukuilua sukalde ondoan zegoen. Lehen, ganaduari garrantzia handiagoa ematen zitzaion: egunean hirutan ematen zitzaion jaten, zenbait baserritan askak sukaldera begira zeuden, askak nolakoak izaten ziren...

19. Ardiak, artegiak eta artxarak

- **Erref**: URR-028/028
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:50:27. **Bukatu**: 00:51:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artegiak eta artxarak (ardientzako egurrezko askak) nolakoak ziren azaltzen dute. Garai batean, inguruko baserri denetan zauden ardiak.

20. Baserriaren egitura: ateak eta "mealiña"

- **Erref**: URR-028/029
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:51:53. **Bukatu**: 00:53:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Baserriaren egitura. Sarrerako atea nolakoa izaten zen: "ate erdikoa". Baserri askotan, erdian pareta bat egoten zen "mealiña" izenekoa. "Mealiña"ren funtzioa: suteren bat izanez gero, etxebizi erdia salbatzea. Normalean, "mealiña"k burnizko edo txapazko ate bat izaten zuen.

21. Baserriaren egitura: materiala

- **Erref**: URR-028/030
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:53:26. **Bukatu**: 00:56:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Baserriaren egitura. Etxebizitza zer materialez eginda egoten zen: harria, egurra, teilak... Teilatuaren formari buruzko azalpenak. Tximiniak: zenbat eta zer materialez egindakoak.

22. Fruta-arbolak

- **Erref**: URR-028/032
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:57:28. **Bukatu**: 00:58:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Inguruetako fruta-arbolak: sagarra, gerezia, arana, intxaurra, melokotoia, pikua... Melokotoia etxe guztietan zegoen, baina galdu egin zen.

23. Sagar motak

- **Erref**: URR-028/034
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:58:30. **Bukatu**: 01:00:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Sagarra etxeko kontsumorako eta ganaduari emateko izaten zen. Sagarra gordinik nahiz erreta jan ohi zen. "Orain baino sagar askoz gehiago jaten zen

orduan" dio Betegik. Mendiko bazkaria: baba eta sagar errea. Hainbat sagar mota izendatzen dituzte: Errezil-sagarra, mokote sagarra, Deskarga-sagarra, sagar urdina, usa-sagarra, abade sagarra...

24. Fedeari lotutako ohiturak

- **Erref**: URR-028/036
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:02:53. **Bukatu**: 01:05:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
San Juan Egunetan gurutzeak egiten ziren lizar-egur edo arantza zuriarekin. Sarrerako ate buruetan eta soro bazterretan jartzen ziren gurutzeak. Apaizak bedeinkatu ohi zituen lurrak.

25. Gari-meta edo "mutturioa"

- **Erref**: URR-028/038
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:05:46. **Bukatu**: 01:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Gari-meta eta "mutturioa" (gariarekin egiten dena). "Mutturioa" nola egiten den azaltzen du: doezenerdi gari-sorta edo lastazaorekin egiten zen.

26. Metak nola egin

- **Erref**: URR-028/039
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 01:07:05. **Bukatu**: 01:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Gari- eta belar-metak nola egiten diren azaltzen du Joxek. Meta bat egiteko pausoak: alkazia edo gaztain egurrezko meta-ziri bat sartzen da lurrean. Zoruan egurrezko ganbara txiki bat egiten da. Haren gainean belarra nola jarri behar izaten den azaltzen du. Bukatzeko, gainean ziri batzuk edo zakua jartzen dira.

27. Santa Barbarako eskola

- **Erref**: URR-028/041
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:14:29. **Bukatu**: 01:15:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskola garaiko kontuak. Santa Barbarako eskolan ibili ziren biak. Bost-sei urterekin hasi ziren eskolan. Eskola non zegoen eta nolakoa zen azaltzen dute.

28. Poltsikoak harriz bete

- **Erref**: URR-028/042
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:15:50. **Bukatu**: 01:17:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Eskola garaiko pasadizoa. Joxek eskuak poltsikoan ibiltzeko ohitura zuen, eta maistrak poltsikoak harri kozkorrez betetzeko esan zionekoa kontatzen du. Joxek irakasleari erantzun egin zion, eta hark zigortu egin zuen.

29. Hezetasuna, erlearen etsairik handiena

- **Erref**: URR-029/002
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:01:02. **Bukatu**: 00:01:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Estalpeko eta aire libreko erlauntzen arteko konparazioa. Estalpeko erlauntzen zer abantailak: eztia ez da bustitzen, egurrak gehiago irauten du... Erlearen etsairik handiena hezetasuna dela dio Joxek.

30. Erlauntzak, hegoaldera begira

- **Erref**: URR-029/003
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erlauntzak zer norabidetara begira egon behar duen: "ekialde eta hegoalde artean, eguzkia sortzen den aldetik hego aldera begira" egon behar du.

31. Erlategietako gaitzak I: lokea

- **Erref**: URR-029/005
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:03:19. **Bukatu**: 00:06:24

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Hezetasunak gaixotasunak sor ditzake erlategian. Loke gaitzari buruzko hainbat azalpen: gaitz kutsagarria da eta erlea gal daiteke. Lokea beste erlauntzetara ez hedatzeko zer egin behar den aipatzen du Joxek. Loke amerikarra eta europarra bereizten ditu.

32. Erlategietako gaitzak II: "pollo escayolado"

- **Erref**: URR-029/006
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:06:24. **Bukatu**: 00:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
"Pollo escayolado" izenez ezagutzen den gaitzari buruzko azalpenak. Gaitz horrek "ez dauka arriskurik": ez da kutsagarria eta ez da erlea galtzen.

33. Erlearen jatorria eta motak

- **Erref**: URR-029/008
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erlearen jatorria. Erle-haztegiak atzerrian. Hainbat erle mota aipatzen ditu: apis mellifera mellifera (Gipuzkoan dagoen erlea), apis mellifera iberica...

34. Erleen ugalketa, bizi-zikloak eta motak

- **Erref**: URR-029/010
- **Iraupena**: 0:05:39. **Hasi**: 00:14:58. **Bukatu**: 00:20:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erleen ugalketa prozesua eta bizi-zikloak. Erle motak: erregina (besteak baino luzeagoa), erlamandoa (besteak baino handiagoa) eta langilea (txikiena eta ugariena). Erle bakoitzaren eginkizuna zein den. Udaberrian, erlauntz batean erregina bat, 200-300 erlamando eta 20.000 erle langile egoten dira.

35. Erleak eta landareak

- **Erref**: URR-029/012

- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:21:09. **Bukatu**: 00:25:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Flora

Laburpena:
Erleak erlauntzatik ateratzen dira nektarra, propoleoa eta polena biltzera. Polena ematen duten hainbat landare: txikuri belarra, urritza, sahatsa (nektarra ere badu honek), fruta-arbolak (aranak, melokotoiak...), txilarra... Erlezain batek antzeman dezake eztia zer polen motarekin egindako den haren koloreari, usainari eta gustoari erreparatuta.

36. Erleen usaimena eta kea

- **Erref**: URR-029/015
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:36:27. **Bukatu**: 00:38:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erleen usaimena: pertsonok urduri gaudenean usain batzuk askatzen ditugu, eta erleek horiek antzemanda erasotzera jo dezakete. Erlauntza zabaltzeko eta erleak uxatzeko kea erabili ohi da.

37. Erlezaintza: ke-auspoa

- **Erref**: URR-029/017
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:39:25. **Bukatu**: 00:43:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Erlezaintzan erabiltzen den ke-auspoaren irudiak. Pinu txirbila, pinu orria edota belarrondoa erabil daitezke kea egiteko.

38. Erlauntzetan sortzen diren produktuak

- **Erref**: URR-029/021
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:46:24. **Bukatu**: 00:48:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Erlauntzetan sortzen diren produktuak sei dira: eztia, argizaria, propoleoa, polena, "jalea reala" (erregina-jelea) eta apitoxina.

39. Eztia

- **Erref**: URR-029/027
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:56:58. **Bukatu**: 00:58:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Beste erlauntz baten irudiak. Neguan eztia jartzen die erlei erlauntzean, jan dezaten. Eztiak ez da iraungitzen, baina denborarekin propietate batzuk galtzen ditu.

40. "Realera", erreginaren kabia

- **Erref**: URR-029/030
- **Iraupena**: 0:04:31. **Hasi**: 01:04:53. **Bukatu**: 01:09:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Erlategiko irudiak. "Realera", erreginaren kabia (Iruditan: kanpora begira dauden bi punta). Erregina berria sortzeko arrazoiak: familia handia denean (beste familia bat sortzeko) eta erregina gaixotzen edo antzutzen denean.

41. Erlezaintzako tresnak

- **Erref**: URR-029/034
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:11:46. **Bukatu**: 01:14:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Erlezaintzan erabiltzen diren tresnak: espatula, alikatea, ke-auspoa, laukia, lamina, eskobila alanbrea...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-10-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com